

Euskal Herriko Ahotsak  
ahotsak.com

*Michel Mendibil*

*Mehaine,  
Nafarroá  
Beherea  
(1938-2014)*

Aurkibidea



## Biografia



Michel Mendibil Mehainen sortu zen 1938an, 6 haurrideetako familia batean. Gurasoek ez omen zekiten euskara besterik (aitak 1914ko gerlan ikasi omen zituen frantseseko zenbait hitz). Mehainen ibili zen eskolan 10 urtera arte. Gero Baionako "Maîtrise" deitu apezgaien kolegiara joan zen (Uztaritzeko seminariara joan aitzin hara joaten ziren mutil gazteak), baina berarentzat hango diziplina gogorregia zela-eta utzi egin zuen eta 13 urterekin etxera itzuli zen. Hasieran etxean laguntzen zuen. Gero, Gabadin mutil zegoen anaiak gerlara joan behar izan zuen eta haren ordeztan joan zen Gabadira. 20 urtez (14 urtetik 34 urtera) egon zen mutil Gabadin. Herri horretan berean ezkondu zen 1967an eta bertan erosi zuen Ixalegoitia etxaldea. Hiru haur ukan zituen.

## Zintak

### MEH-001

- **Proiektua:** Euskal kultur erakundearen artxiboak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Lekumberri, Terexa
- **Data:** 2008-06-24
- **Iraupena:** 107 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

## Pasarteak

### 1. « Maîtrise » deitu apezgai kolegioa Baionan 1950. hamarkadan

- **Erref:** MEH-001/001
- **Iraupena:** 0:06:53. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:06:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa
- Aisia » Kultura » Musika

**Laburpena:**

Maîtrise » deitu kolegioa apezgaiantzat egina zen. 6. eta 5. urteak egiten ziren hor Uztaritzeko Seminarioan sartu aintzin. Hogoï ta hamar bat mutiko biltzen ziren hor, kantu gregorianoak ikasten zituzten eta bizi gogorra eramaten. Michel Mendibilek ez zuen jasan ahal izan horgo bizia, askatasuna sobera maite zuelako eta urte baten buruan utzi zuen.

**2. Mutilgoa Gabadin (1952-1958)**

- **Erref:** MEH-001/002
- **Iraupena:** 0:07:21. **Hasi:** 00:06:53. **Bukatu:** 00:14:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa
- Lanbideak » Neskameak

**Laburpena:**

Amikuzeko mutiko gazteak, eta seguraski Euskal Herri osokoak, goizik hasten ziren mutil. Mutila urtean behin pagatua zen. Bainan bazuen ere beste diru iturri bat, « buztan saria » deitzen zena, ahatxe edo behi bat saltzean nagusiak edo batzutan saltzaileak ematen ziona. 1950. hamarkadan bazen Gabadin apez bat 14-20 urtetako mutiko gazte horien hezkuntza sentimentalaz arduratzen zena.

**3. Algeriako gerla (1958-1967)**

- **Erref:** MEH-001/003
- **Iraupena:** 0:15:38. **Hasi:** 00:14:14. **Bukatu:** 00:29:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Algeriako gerra (1954-1962)

**Laburpena:**

Lekukotasun guzien arabera, gazte gazterik joaiten ziren Algeriara. Michel Mendibilek doi doia 20 urte zituen Atos itsasuntzia hartu zuelarik, 3000 lagunekin, Algeriara heltzeko 48 orenen buruan. Han beste mundu bat aurkitu zuen. Bi urteren buruan etxera itzultzea aments bat bezala bizi izan zuen, nahiz eta Euskal Herriko bizia arrunt aldatua aurkitu zuen.

**4. Euskaldun Gazteriaren mugimendua**

- **Erref:** MEH-001/004
- **Iraupena:** 0:11:39. **Hasi:** 00:29:52. **Bukatu:** 00:41:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa

**Laburpena:**

Bigarren gerlatik landa abiatu zen Euskal Gazteriaren mugimendua (1950 inguruan, Garikoitzenea laborantza eskolaren idekitzearekin batera). Apezak ziren mugimendu honen ardatzak : Amikuze aldean Etxegoien Aransusiko

erretorra, Challet Donapaleuko bikarioa, Eiherabide Arberatzeko erretorra bai eta ere Pagola apeza. Helburua zen gazteak elgarretaratzea beren gizarte hurbileko gai batzueri buruz gogoetak eraman zitzaten. Lurraren besta antolatzen zuen ere urtero Euskaldun Gazteriak.

## 5. Laborantxaren aldaketak 1960etik goiti

- **Erref:** MEH-001/005
- **Iraupena:** 0:07:42. **Hasi:** 00:41:31. **Bukatu:** 00:49:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Baserría » Baserríko lanak » Artoa
- Baserría » Baserríko lanak » Baserríko animaliak

### Laburpena:

1960 hamarkadan, maileguak aski errexi lortzen zituzten laborariek. Garai hartan, laborantxako mozkinak ere prezio onean saltzen ziren. Michel Mendibilek lehenik behi hazkuntza egin du eta gero ardienea, bai eta ere hazitako artoa 1998 artio. 1955 inguruan sartu den hazi honek bere historia badu Amikuze aldeko laborantxaren eboluzioan.

## 6. Ogi joitea 1950. hamarkadan

- **Erref:** MEH-001/006
- **Iraupena:** 0:03:09. **Hasi:** 00:49:13. **Bukatu:** 00:52:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Baserría » Baserríko lanak
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

### Laburpena:

Egun hortan adinetakoek ogi bihia zakuen barnean biltzen zuten ; gaztek aldiz lastometak muntatzen. Alegrentziatzko eguna zen, jateko eta arno onarekin (oilo salda, ahatekia).

## 7. Arto xuritzea

- **Erref:** MEH-001/007
- **Iraupena:** 0:05:22. **Hasi:** 00:52:22. **Bukatu:** 00:57:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Baserría » Baserríko lanak
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

### Laburpena:

Arto xuritzea arratsetan iragaiten zen, ezkaratzean. Gazte eta adinetako, xahar eta gazte lanean ari ziren hor, kantu berezi batzu emanez. Michel Mendibilek arto xuritzetako laupabost kantu ematen dizkigu zuzenean.

## 8. Mahastiari eta mahatsari lotu lanak

- **Erref:** MEH-001/008
- **Iraupena:** 0:04:07. **Hasi:** 00:57:44. **Bukatu:** 01:01:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Baserria » Baserriko lanak » Ardogintza

### Laburpena:

Hamabost gizon gazte biltzen ziren mahasti aitzurretan. Mahats moxtea xaharren lana zen. Mahats biltzea familian eta bizpairu auzoekin egiten zen. Arno egitea beste afera bat zen. Mahatsa zangoz lehertu eta, zuhana handi batetara ixurtzen zen eta han eraikitzen uzten. Eraikin eta, graspa ateratzen zen eta brentsan ezartzen, azken jusa eman zezan.

## 9. Herriko bizia eta elizaren eragina Gabadin 1960 hamarkadan

- **Erref:** MEH-001/009
- **Iraupena:** 0:10:21. **Hasi:** 01:01:51. **Bukatu:** 01:12:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
- Baserria » Baserriko lanak » Errota

### Laburpena:

Herria elizaren erritmoan bizi zen : rogazioneak maiatzean, Besta Berri ekainean, igande guzietako mezak eta bezperak, bezperatik landa pilota partida edo birlen jokoak... Elizako serora (andere serora) hor zen gazten zaintzeko. Eliza garbitzen zuen eta zeinuak joiten. Oiloak eta baratzea bazituen eta etxe bakoitzak gaitzuru bat ogi eta arto parte ematen zion (eiherazainari bezala).

## 10. Jondonibane sua eta Euskal Herriko sinesteak

- **Erref:** MEH-001/010
- **Iraupena:** 0:16:40. **Hasi:** 01:12:12. **Bukatu:** 01:28:52

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak
- Aisia » Jai-giroa
- Aisia » Jai-giroa » San Juan

### Laburpena:

Haurrean, 1940-1950 urteetan, Michel Mendibilek Jondonibaneko suaren gainetik jauzi egiten zuen. Iguzkia atera aintzin, elorri xuriarekin eta ogi buru andana batekin gurutze bat egiten zuten. Udaberriko errito hauek bezala, sineste frango baziren lehenago, erlijioa eta paganismoa nahasten zituztenak.

Michel Mendibilek arima erratien, laminen, sorginen ixtorio batzu kondatzen dizkigu.

## 11. Pantzarte Eguna (Ihauteriak)

- **Erref:** MEH-001/011
- **Iraupena:** 0:01:09. **Hasi:** 01:28:52. **Bukatu:** 01:30:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa
- Aisia » Jai-giroa
- Aisia » Jai-giroa » Inauteriak

### Laburpena:

Gabadin, beste herri askotan bezala ihauteriz, gazteak ibiltzen ziren etxez etxe janari keta. Arratsaldean dantzaldi bat bazen herritarrentzat. Anjelusak jotzen zuenean, neskatoak etxera joaiten ziren, gizonak aldiz ostatuan egoiten.

## 12. Alaguardia Gabadin

- **Erref:** MEH-001/012
- **Iraupena:** 0:03:34. **Hasi:** 01:30:01. **Bukatu:** 01:33:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Baserria

### Laburpena:

Gabadiko Alaguardia, Gamueko jauregiaren bisean bis aurkitzen den etxe gotor bat da (zubi bat bazen lehenago bien artean). Alaguardiak Gamueko jauregia zaintzen zuten soldadoak aterbetu izan ditu. Mendetan zehar, laborari etxea bilakatu du. Gaurregun, ez da gehiago etxaldea baizik eta bizitegi bat.

## 13. Ehüleko lurrak

- **Erref:** MEH-001/013
- **Iraupena:** 0:08:08. **Hasi:** 01:33:35. **Bukatu:** 01:41:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

### Laburpena:

Nafarroako Erresumarenak omen ziren Ehüleko lurrak bai eta ere Amikuzeko oihan guzia funtsean. Napoleon Lehenaren garaian, 300 hektara hauek banatuak izan dira Labetze, Ilharre, Gabadi, Gamue-Zohazti, Arboti eta Escoseko herrien artean. Lurrik gabeko artzainek zuzten lehengo denboretan erabiltzen. Geroztik lur horiek banatuak izan dira 5 herrietako familien artean

## 14. Ixalegoitia, Gabadiko zurezko etxea

- **Erref:** MEH-001/014
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 01:41:43. **Bukatu:** 01:43:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

### Laburpena:

Joana Labriten garaian, protestantek ainitz etxe erre zituzten Amikuzen. Amikuztarrek etxe berriak eraiki zituzten : hauek, Ixalegoitia bezala, zurezkoak ziren.

**Ahotsak.eus**-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

*2026-06-07*

**CC-by-sa | Ahotsak.eus**

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com